



ETXALEKU
ETXALEKU

ETXALEKU (IMOTZ)

Agustin Beloki, okina eta bertsolaria.

*Tierra honetan egitten dittik bero ikaragarriek
Itturriko semia hemen zabillek gehienian egarriek
tierra hontako refresco eta hemengo inbento guztiek
baño askos gehiago balio dik nere ataiko itturriek*

– Afriken pastu nittun nik bi urte, eta handik etorri ta, hemen famili haundi xamarra giñen ba gu, zortzi senide bagiñen da, geo, ni zarrena naiz ba itxe hontan, eta hasi nitzen panadero hemen, jar (—) alde honetan, panadeiyua jarri nun, itxe hontan in nun hornotto at, eta asto atekin hasi nitzen, obie partitzen, eta geo pixke, pixke, pixke, oain ya...

Labea, lemixikoa in nuna bota, ta beste at in nun askos hobea, eta hori in ta ya beste zortzien bat urtes harrekin lan in nun ta, geo lruñen ondo hortan esan zeeten ba ne laun betzuk, panaderoak: «gaizki gaitzek hola, denak obi itten ta denak hemen peleien, in beadiau horno at hor Zizurren», eta: «nauk sozio?», ta: «espea zaze pixko at –ni fameliakin neon ta–, hitz in bialt» ta, eondu nitzen ta: «bai gaiñeakon peleien biziko gaittuk beis eta», sartu giñen sozio, eta eondu gaa urte purruste ates sozio, obie in dugu ta saldu dugu, ta geo beis lruñeko soziedade horrek esan zigun, Panasak: «malamente ai gaittuk hoinbeste panadero, guk itten dieu obie labe batean, zuk... askos e errexagoa ta labe at eoteaskeo komeni duk asko ittea», ta oain gue panaderia utzi eta obie handiken ekartzen duu, eta a ze lanetaa alleatu gaan, hoi nee denboan ikusi ut nik hoi, bai...

– Baina lehen, lan handiagoa egiten al zen?

– Lenao nik, lemixko eskus itten nun ba obie, geo paatu nun motortto at, eta hoi, hoi, ordun mentaja haundie zen, motorrai beire ta ziarro at itten, eta oain hara!, denak pastu dee gauza hoiek eta oain beste modu betea bizi gaa. Ta oain nee famelie, ni erretietuik neok ya, eta pensue itten giñun ba guk hor, eta hor oain almazen bat duu «de piensos» eta oain horrekin bizi dee nee semeak eta nee illobak, horrekin dee oain.

– Nik laueta hoite zazpi urte konplittu dittut, eta nik e, ya, erretietuik neok joan den hoge urtean, ni kobratzen ai naiz erretiroa...

– Orduan bizi lan egin gabe...

– Oain bizi lan in gabe ta, oain pentsatzaut nik, nik sasoik hobeen hobee-nean, oain ematen deeten paga hau enun ebaazten, oain diru honek gutxio

balio du eh?, biño pezta kontun sasoiik hobeen hobeenean nik lan guzikin oain ematen deeten hori enun ebaazten, etzeten paatzen...

– Eta zein da hobeagoa lehenagoko ogia edo gaur egun egiten dena?

– Gaur itten den obi hau da artifiziala dena, biarren egunean eo hiruarren egunean ya eztaiteke jan. Nik hemen herri ttiki hoketaa, Zarranzaa ta hola-ko... Goldaaza eta hoketaa, asto atekin eamaten nun, astean behin, ta hori ba, «cabezón» hoietatiken, ba obi haundik, kilokoak itten nittun ta oain ee, mezon-tan ilusio hori dauket nik, halako obi bet entregatu beaut nik, ta esan beaut gaiñea... nauzu bersoa botatzea oain? Elizen bota beaut,

Nere denboran horlaxekua egitten nun nik obia
eta orai re gustatzen zaie gauze hau konserbatzia
orai zartuta atera nahi ttut lengo abilidadiak
eta gaur hemen honea heldu naiz ofrendan entregatzia.

Oain lenaoko klasi hori, hori nee ilusioa hori da...

Bersuetan gazte-gaztea nitzela ni hasi nitzen, bai. Gue aittek idiak eaman tzittun Irurtzune saltzea, t'etzittun saldu, ta lenbixko bersoa hauxe bota nun:

Gure aitek idi hoiek nahi dittula saldu
nahiz idik ez saldu zer dik horrek galdu
Otamendin etxean eerki bazkaldu.

Lenbixko berso hori bota nun nee denboan,

– Han, Irurtzunen berean?

– Ez, ez, itxea... ni mutiko kozkorra nitzen ba, ta joan ginen harea t'ez-kiñuzen saldu, ta geo itxea etorri ta nik hori beittin (---) ta hori kantatu nun,

– Eta aitak zer esan zuen?

– Aittak ez zeen aittu, nik aittai esan gabe nik kantatu nun hori, bai.

– Baina familian edo, bazen zure familian, hola aitak bazuen afizioa bertotako?

– Ez, ez, ez, nee abueloa, hango raza aurki izain naiz bai ni, nee abueloa gipuzkoanoa zen, itxe hontan, honea etorri zena, hor Andoingo semea, eta honea etorri omen zen hore ikezkiñen, iketza ittea, eta itxe hontan nagusia bihar zela eta hemen geldittu zen, eta geo, gue arraza hangoa da, Beloki apelidoa, gue apelido hau gipuzkoanoa da hala, bai...

– Beste at bazen ba han nee klasekoa, Miel Arroki, ta elkarrekin aitzen giñen gu askotan, hola, bai. Eta geo, ni Afrikea joan nitzen eta horrek, hemen nee lagun hori hasi zen, lasterrean, ta in zun laster apustue, eta lemixko

jokatua zioten hemengo gizontto batei, gizon koxkor batei, ta harrei ebaazi in zioten bi launek, mutikoak, hoiek gazteak zeela, haiek gora eta hemengo gizon bat bera, karretera hortan, karretera puska hortan in tzuten apustue, eta harrei ebaazi in zioten, ta geo nee bi osaba, prestatu zeen, haiek jokatuko ziotela, eta baita, haiei jokatuko ziotela horrek, ta geo nik Afriketiken, nei laun batek beali zeen, nola Arrokkik in zun apustue ta nola ebaazi zion Dortoko Joxei, eta geo nee osabak ebaazi in ziotela, eta nei horrek karta eskribittu zeen hemendiken ta deus ee ez zeen esaten, eta nik handikan beali nion:

*Zer modues habille amigo Arroki
asko idabazten duk laster apustukin
Arano bezelako gizon kaxkarrakin
jostatzen men zerate sarasatarrokin*

Geo nee osabai jokatu zioten ta haiek in zioten ebaazi,

*Geo arrapatu ttutek hor diferentiak
Ze ziela uste yuen nere parientiak
Zarrak ta seko baña oraindik fuertiak
hori perrazatzen dik arraza fuertiak*

Ta geo ondoren horrek taernan esaten omen zun: «zerri harrei nok beali ote dio, bazakik dena», ta geo harrek hemen taernan, kontestazioak botzen omen zittun taernan, baño hark etzeen beali neri...

Nahiko lan izaten nun nik, nahiko, nekea ta, neke asko han, bersolarie behar du izan lan gutxikoa, ta juergiste, biño ni soldaatatik etorri ta hasi nitzen ta hemen bizia ateatzeko, geo esposatu re in nitzen ba berehala ta, familie re haundie izan ta, hamar ume izandu ttut...

Gue aittunek, beste laun bat bazun gipuzkoanoa hemen ta, nee aittunei hanka moztu zioten ni mutiko kozkorra nitzela, ta etortzen zen bee lagun hori ni len han bizi nun (?) goitiko etxe atean, eta aldi etes gue aittun horrek galde in dio: «hi motel hi, biloa haundi xamarra zauket eta moztu beaiak nei bilo hau», eta: «motel, motel, nik nola moztuko it pa, neonei bestek mozten zeek eta...»

Geo Eurtzune joan men tzen, aldi etes, bine txerri gizenekin lurtzune saltzea, ta saldu ttute txerrik eta kobratzeko ere... bazkaldu... haiek kobratu in nahi bazkaltzea joateko, dirua ere ezuten sobrante izain seguru aski ta, kobratu txerriak ta beandu xamar joan dee bazkaltzea beittiko fondaa esaten giñuen Eurtzunen, ta joan dea harea ta, hango etxeko andrea aixkede omen tzuten ta esan, ia bazkaltzeko bazauken, ya beandu xamar zela baña ya

bazkaltzeko zauken zerbait ta: «bai, badauket pa, ollar bat haundie, biño pikante xamar eongo da», ta: «motel pikante pixko atengatik jango diau guk, bai, bai, ekartzan, ekartzan». Eaman diote ollarra ta: «ona zio, ona zio, ta geo: «kontue, ia zenbat den kontue», ta: «duro erdi bana», ta: «koño motel!, oain piketze ik onek, oain...»

ETXALEKU (IMOTZ)

Agustin Beloki, okina eta bertsolaria

Tierra honetan egiten ditik bero ikaragarriak
Iturriko semea hemen zabilek gehienezan egarriak
tierra hontako refresco eta hemengo inbento guztiak
baino askoz gehiago balio dik nere atariko iturriak

Afrikan pasatu nituen nik bi urte, eta handik etorri eta, hemen familia handi samarra ginen ba gu, zortzi senide baginen eta, gero, ni zaharrena naiz ba etxe honetan, eta hasi nintzen panadero hemen, jar (---) alde honetan, panaderia jarri nuen, etxe honetan egin nuen hornotto bat, eta asto batekin hasi nintzen, ogia partitzen, eta gero piskana, piskana... orain jada...

Labea, lehenbiziko egin nuena bota, eta beste bat egin nuen askoz hobea, eta hori egin eta jada beste zortziren bat urtez harekin lan egin nuen eta gero, Iruñen ondo horretan esan zidaten ba, nere lagun batzuek, panaderoak: «gaizki gabiltzek horrela, denak ogi egiten, eta denak hemen pelean, egin behar diagu horna bat hor Zizurren», eta: «nahi duk sozio?», eta: «espera ezazue piska bat –ni familiarekin nengoen eta–, hitz egin behar diat», eta egon nintzen eta: «bai, gainerakoan pelean biziko gaituk berriz ere eta», sartu ginen sozio, eta egon gara urte parrasta batez sozio, ogia egin dugu eta saldu dugu, eta gero berriz Iruñeko soziedade horrek esan zigun, Panasak: «malamente ari gaituk horrenbeste panadero, guk egiten diagu ogia labe batean, zuk... askoz ere errazago, eta labe bat egoteaz gero komeni duk asko egitea», eta orain gure panaderia utzi eta ogia handik ekartzen dugu, eta hara!, zein lanetara ailegatu garen, hori nere denboran ikusi dut nik, hori, bai...

– Baina lehen, lan handiagoa egiten al zen?

– Lehenago nik, lehenbiziko eskuz egiten nuen ba ogia, gero paratu nuen motortxo bat, eta hori, hori orduan bentaja handia zen, motorrari begira eta zigarro bat egiten, eta orain, hara!, denak pasatu dira gauza horiek, eta orain beste modu batera bizi gara. Eta orain nere familia, ni erretiraturik negok jadanik, eta pentsua egiten genuen ba guk hor, eta hor orain almazen bat dugu «de piensos», eta orain horrekin bizi dira nere semeak eta nere ilobak, horrekin dira orain.

Nik lauretan hoge eta zazpi urte kunplitu ditut, eta nik e, jada, erretiraturik negok joan den hoge urtean, ni kobratzen ari naiz erretiroa.

– Orduan bizi lan egin gabe...

– Orain bizi lan egin gabe eta, orain pentsatzen dut nik, nik sasoirik hoberen-hoberenez, orain ematen didaten paga hau ez nuen irabazten, orain diru honek gutxiago balio du eh?, baina pezeta kontuan, sasoirik hobe-

ren-hoberenean nik lan guziarekin orain ematen didaten hori ez nuen irabazten, ez zidaten pagatzen...

– Eta zein da hobeagoa, lehenagoko ogia edo gaur egun egiten dena?

– Gaur egiten den ogi hau da artifiziala dena, bigarren egunean edo hirugarren egunean jada ez daiteke jan. Nik hemen herri txiki horietara, Zarrantzara, eta holako... Goldaratzera eta horietara, asto batekin eramaten nuen, astean behin, eta hori ba, «cabezón»¹ horietatik, ba ogi haundiak, kilokoak egiten nituen eta orain ere, meza honetan ilusio hori daukat nik, halako ogi bat entregatu behar dut nik, eta esan behar dut gainera... Nahi duzu bertsoa botatzea orain? Elizan bota behar dut,

Nere denboran horrelaxekoa egiten nuen nik ogia
eta orain ere gustatzen zaie gauza hau kontserbatzia
orain zahartuta atera nahi ditut lehengo abilitadiak
eta gaur hemen honera heldu naiz ofrendan entregatzera.

Orain lehenagoko klase hori, hori, nere ilusioa hori da...

Bertsuetan gazte-gaztea nintzela hasi nintzen, bai. Gure aitak idiak eraman zituen Irurtzuna saltzera, eta ez zituen saldu, eta lehenbiziko bertsoa hauxe bota nuen:

Gure aitak idi horiek nahi dituela saldu
nahiz idiak ez saldu zer dik horrek galdu
Otamendiren etxean ederki bazkaldu

Lehenbiziko bertso hori bota nuen nere denboran.

– Han, Irurtzunen berean?

– Ez, ez, etxera... ni mutiko kozkorra nintzen ba, eta joan ginen hara, eta ez genituen saldu, eta gero etxera etorri eta nik hori beheitian (---), eta hori kantatu nuen.

– Eta aitak zer esan zuen?

– Aitak ez zidan aditu, nik aitari esan gabe kantatu nuen hori, bai.

– Baina, familian edo, bazen zure familian, hola, aitak bazuen afizioa bertsoak?

– Ez, ez, ez, nere abueloa, hango arraza aurki² izanen naiz bai ni, nere abueloa gipuzkoanoa zen, etxe honetan, honera etorri zena, hor Andoaingo semea, eta honera etorri omen zen hura ikazkinen, ikatza egitera, eta etxe honetan nagusia behar zela eta hemen gelditu zen, eta gero, gure arraza hangoa da, Beloki apelidoa, gure apelido hau gipuzkoanoa da hala, bai...

Beste bat bazen ba han, nere klasekoa, Migel Arroki, eta elkarrekin aritzen ginen gu askotan, hola, bai. Eta gero, ni Afrikara joan nintzen eta horrek, hemen nere lagun hori hasi zen, lasterrean, eta egin zuen laster apustua, eta

(1) Ogi mota bat, handia eta borobila.

(2) Eskierki; seguru asko.

lehenbiziko jokaturia zioten hemengo gizon bati, gizon koxkor bati, eta hari irabazi egin zioten bi lagunek, mutikoak, horiek gazteak zirela, haiek gora eta hemengo gizon bat behera, karretera horretan, karretera puxka horretan egin zuten apustua, eta hari irabazi egin zioten, eta gero nere bi osaba prestatu ziren, haiek jokaturia ziotela, eta baita, haiei jokaturia ziela horrek, eta gero nik Afrikatik, neri lagun batek bidali zidan, nola Arrokik egin zuen apustua, eta nola irabazi zion Dortoko Joseri, eta gero nere osabek irabazi egin ziotela, eta neri horrek karta eskribitu zidan hemendik, eta deus ere ez zidan esaten, eta nik handik bidali nion:

Zer moduz habil, amigo Arroki
asko irabazten duk laster-apustukin
Arano bezalako gizon kaxkarrarekin
jostatzen omen zarete sarasatarrokin.

Gero nere osabei jokaturia zien eta haiek egin zioten irabazi.

Gero arrapatu dizkitek hor diferenteak
Zer zirela uste huen nere parienteak
Zaharrak eta seko baina oraindik fuerteak
hori perrazutzen dik (?) arraza fuerteak

Eta gero ondoren, horrek tabernan esaten omen zuen: «zerri hari nork bidali ote dio, bazakik dena», eta gero hark hemen tabernan, kontestazioak botatzen omen zituen tabernan, baina hark ez zidan bidali neri.

Nahikoa lan izaten nuen nik, nahikoa, nekea eta, neke asko han, bertsolariak behar du izan lan gutxikoa, eta juergista, baina ni soldadotatik ³ etorri eta hasi nintzen hemen bizi ateratzeko, gero esposatu ere egin nintzen bada, berehala eta, familia ere haundia izan eta, hamar ume izan ditut...

Gure aitonak, beste lagun bat bazuen gipuzkoanoa hemen eta, nere aitonari hanka moztu zioten ni mutiko koxkorra nintzela, eta etortzen zen bere lagun hori ni lehen han bizi nintzen goitiko etxe batean, eta aldi batez gure aitona horrek galde egin dio: «hi motel, hi, biloa handi samarra zeukeat eta moztu behar didak neri bilo hau», eta: «motel, motel, nik nola moztuko diat ba, neroneri bestek mozten zidatek eta...»

Gero Irurtzuna joan omen ziren aldi batez, bina txerri gizenekin, Irurtzuna saltzera, eta saldu dituzte txerriak eta kobratzeko ere... bazkaldu... haiek kobratu egin nahi bazkaltzera joateko, dirua ere ez zuten sobrante izanen seguru aski eta, kobratu txerriak eta berandu samar joan dira bazkaltzera, beheitiko fondara, esaten genuen Irurtzunen, eta joan dira hara eta, hango etxeko andrea adiskide omen zuten, eta esan, ea bazkaltzeko bazeukan, jada berandu samar zela baina ea bazkaltzeko zeukan zerbait, eta: «bai, badaukat

(3) Soldadutzatik.

ba, oilar bat handia, baino pikante samar egongo da», eta: «motel, pikante piska batengatik jango diagu guk, bai, bai, ekartzan, ekartzan». Eraman diote oilarra eta: «ona zegok, ona zegok», eta gero: «kontua, ea zenbat den kontua», eta: «duro erdi bana», eta: «koño, motel!, orain pikatzen dik honek, orain...»